

Behin betiko ebazpena, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, zeinaren bidez egiaztatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleek lortutako kompetentzia digitala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak xede horretarako antolatutako prestakuntza-jarduerak gauzatura.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen 2024ko azaroaren 29ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduk, irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoak ofizioz egiaztatu ahal izango duela irakasleen kompetentzia digitala ezartzen du, xede horretarako aitortutako prestakuntza-jarduera gainditu dutenei.

Beraz, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz (2024ko abenduaren 3ko EHAA, 235. zk.) eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa

Ofizioz egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala, maila bakoitzean Irakasleen Kompetentzia Digitala lortzeko Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza gainditu dutenei.

Zehazki, irakasleen kompetentzia digitalaren A2 eta B1 mailak egiaztatzen dira, prestakuntza-jarduera hauetan,

IKASTURTEA	IKASTAROAREN KODEA	HASIERA DATA	AMAIERA-DATA
2024/2025	2472BGNI08	2024/10/30	2024/12/20
2024/2025	2472BGNI09	2024/10/30	2024/12/20
2024/2025	2472BGNI11	2024/11/11	2025/01/13
2024/2025	2472BGNI13	2024/11/04	2025/01/13

Bigarrena

1. Lortutako irakasleen kompetentzia digitalaren maila egiaztatzen duen dokumentua ematea. Heziguneko Langileen Atariko eremu pribatuan eskuratu ahal izango da.
2. Egiaztagiria Estatuko lurralde osoan balio du.

Hirugarrena

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna,

Lucia Torrealday Berrueco
Hezkuntza Politiketako sailburuordea